



# Euskal Lozak eta Portzelanak

## Lozas y Porcelanas Vascas

*Siglos XVIII-XX Mendeak*

EUSKAL MUSEOA · BILBAO · MUSEO VASCO

Areto honetan ikusgai duzue eguneroko zereginetarako loza eta portzelanazko objektuak ekoizten zituzten Euskal Herriko lantegietan XVIII-XX. mendean artean sortutako piezen bilduma bat.

Lehenbiziko atalean **eztainu-esmaltedun zeramika** (*loza arrunta* ere deitzen dena) erakusten da. Zeramika honen ezaugari nagusia da piezak buztin gorri edo zurixkekin eginak direla eta esmalte zuriz estaliak. Zeramika mota honen adibidezat Bilboko Santa Casa de Misericordiaren Loza Arrunt eta Fineko Lantegietan ekoitzitako piezak erakusten ditugu. Normalean eskuz apaintzen ziren landare irudiekin, lauzpabost kolore baizik ez erabiliz (berdea, urdina, marroia, horia...)

Bigarren kapituluan **loza fina** erakusten dugu. Pieza hauek egiteko ore zuriak erabiltzen ziren eta gainean esmalte garden bat ematen zitzaien, oso erraza ezagutzeo zeren estanpazio eta kalkomaniazko dekorazio ugari izaten baitzuen. Pieza hauek XVIII. mende erditsuan hasi ziren egiten Inglaterrako Wedgwood lantegian, garaia hartan indarra hartzan hasitako burgesiar portzelanaren itxurako baina askoz merkeagoko piezak eskaintzeko asmoz. Ekoizpen mota hau azkar zabaldu zen Europa guztira, eta Euskal Herrian Busturiako Yanci eta Axpe lantegietan egiten zen.

Gure erakusketaren azken atalean aurkituko duzuen **portzelana** zoragarria, izugarri zuria eta gardena, Txinan asmatu zen baina XVIII. mendean baizik ez zen hasi egiten Europan. Atal honetan ikusiko dituzuen piezak XIX. mendean sortutako Pasaiako portzelana lantegian eta XX. mendeko Bidasoa, Vidania eta Porcelanas del Norte S.A. lantegietan eginak dira. Atal honetan lantegi horien historia ikusiko dugu eta euretan ekoitzitako produktuen ezaugari nagusiak aztertuko. Ikusiko dugu nola lantegi horien ekoizpenari esker posible izan zen gizarte maila guztietara zabaltzea hasieran elite batzuek –Europako erregetzak eta aristokraziak– baizik ezin eskura zitzaketen zeramika pieza fin hauek.

Erakusketa honetan badira baita ere Euskal Herritik kanpo ekoitzitako zenbait pieza, hemen erakusten baitira euskal giroko irudiekin apainduta daudelako edota euskal erakunde edo familiek garai harako lantegi gailen batzuei eginaraziak direlako.


Presentamos en esta sala una selección de las piezas que el Museo custodia procedentes de las fábricas dedicadas a la producción de objetos utilitarios de loza y porcelana creadas en nuestro territorio entre los siglos XVIII y XX.


La primera parte está dedicada a la **cerámica de esmalte estanífero** (tradicionalmente denominada *loza común*), aquella que se caracteriza por la aplicación de una cubierta de esmalte blanco a las piezas fabricadas a base de arcillas rojas o más o menos blanquecinas. Los objetos procedentes de las Fábricas de Loza Ordinaria y Fina de la Santa Casa de Misericordia de Bilbao servirán de testimonio de esta producción, usualmente decorada a mano con motivos vegetales y en una corta paleta de colores (verde, azul, marrón, amarillo...).

La **loza fina** es la protagonista del segundo capítulo. Se trata de una producción caracterizada por el empleo de pastas blancas recubiertas por un esmalte transparente y fácilmente identificable por sus profusas decoraciones a base de estampaciones y calcomanías. Surgida a mediados del siglo XVIII en la factoría de Wedgwood (Inglaterra) con la finalidad de proporcionar a la emergente burguesía un artículo de aspecto similar a la porcelana pero a un precio menor, se difundió rápidamente por Europa y tuvo su expresión en nuestra tierra en las Fábricas de Busturia, Yanci y Axpe.

La exquisita **porcelana**, definida por su extrema blancura y traslucidez, originaria de China y fabricada en Europa sólo a partir del siglo XVIII, ocupa la última parte de la muestra. Las Fábrica de Porcelana de Pasages, creada en el siglo XIX, y las manufacturas de Bidasoa, Vidania y Porcelanas del Norte S.A., fundadas en el siglo XX, son el objeto de este apartado que pasa revista a su historia y a los elementos más definitorios de su producción, dando cuenta de la difusión entre todas las capas sociales de un producto originalmente elitista, símbolo distintivo de la realeza y la aristocracia europea.

La muestra ofrece también otras producciones foráneas, seleccionadas bien por presentar decoraciones de temática vasca, bien por haber sido encargadas por instituciones o familias vascas a destacadas manufacturas de su tiempo.






Bilboko Erruki Etxea ongintza erakunde bat da. 1762 aldera sortu zuten, behartsuen aterpetzat eta baliabiderik gabeko haurrak haritzeko. 1771ean, eraikin bat eman zioten, bertan jar zedin: San Andres Ikastetxea, Jesusen Lagundiak Gurutze kalean zeukana, egun Museoak okupatzen duen eraikina. 1776ko urtarrilaren 19an egin zen lekualdatze ofiziala. Arte eta industria eskolak ezarri ziren bertan, hala nola oihal eta loza fabrikak. Helburuak bi ziren: lanbide bat ematea egoiliarrei, eta erakundea bera finantzatzea.

Loza Fabrikak 1776an ekin zion bere bideari, eta 1881eko urtarrilaren 1ean itxi zituen ateak ofizialki, erakundea San Mameseko egoitza berrira aldatu zenean. Urte horietan, fabrika etengabe aritu zen lanean, harrera emandako langileen funtsezko partaidetzarekin, eta kanpotik hartutako zuzendari eta langile kualifikatuekin. Tokiko merkatuak eskatutako eltzegintza indartsu bat ez ezik, kalitate handiagoko beste produzio bat ere egin zuen fabrikak, eskariz, ez-tainuzko zeramikaz eta su handiko dekorazio polikromoaz, zeina Talavera izenaz ezagutzen den.

La Santa y Real Casa de Misericordia de Bilbao es una institución benéfica creada hacia 1762 para asilo de pobres y acogida de niños sin recursos. En 1771 le fue concedido para su instalación el Colegio de San Andrés que la Compañía de Jesús tenía en la calle de la Cruz, el edificio que hoy ocupa el Museo. El traslado oficial se llevó a cabo el 19 de Enero de 1776, instaurando en el mismo escuelas de artes e industrias, como las fábricas de lienzos y loza, con el fin de dotar de un oficio a los residentes y financiar la institución

La Fábrica de Loza inició su andadura en 1776 y cerró definitivamente sus puertas el 1 de Enero de 1881, tras el traslado de la Institución hacia su nueva sede de San Mamés. Durante estos años, con los acogidos como mano de obra fundamental y las incorporaciones exteriores de directores y operarios cualificados, la Fábrica desarrolló, junto a una producción alfar demandada por el mercado local, una producción de mayor calidad elaborada por encargo, en cerámica estannífera y decoración policroma de gran fuego, conocida como *Talavera*.



Heldu zaizkigun piezak apaingarriak dira batik bat, forma neoklasikoak dituzten zutabeak eta kopak bereziki. Biek batasun bat osatzen dute. Arrakasta handia eduki zuten altzari gisa, Bilboko elizbarrutiko parroquia-presbiterioetako (Aulestiko San Joan Bataiatzailea, Meñakako Andre Maria, Larrabetzuko Andre Mariaren Jasokundea, eta Goikolexeako San Emeterioren eta San Zeledonen eliza, udalerrri berean) harmailen hasieran. Sakristietarako, berriz, eskuak garbitzeakoak egin ziren (ontzi bat eta harekin bat zetozten konketa). Egurrezko egitura baten gainean eta hormari lotuta jartzen ziren, edo horman txertatuta. Hor garbitzen zituen eskuak meza-emaileak. Batzuek eta besteeak apaindura margotuak dituzte, oso bakunak, estilo klasikokoak, urdinak, berdeak, marroiak eta horiak. Irudiak lore antzekoak eta geometrikoak dira, girlandekin eta kolorezko zenefekin aldizkatuta.

Denbora horretan, Talaverak gorabehera handiak jasan zituen. Hazten eta hiltzen ikusi zuen Loza Fineko Fabrika, 1842 eta 1851 bitartean. Ingeles erako loza finak ekoizteko proiektuak, izan ere, sekulako gastuak izan zituen instalaziotan, lehengaien bilaketan eta teknikari kualifikatuak kontratazioan. Ez ongintza erakundeak, ez haren babesleek, ezin izan zieten aurre egin horiei, eta horrek ekarri zuen porrota. Ekoizpen horretatik bi testigantza gorde dira bakarrik: eskuak garbitzeko bi. Morgako Andre Mariaren elizakoa bata, eta Olarteko San Bartolome elizakoa, bestea.

Loza finaren hondamenaren ondoren, Talavera Fabrikak baliatu egin zituen sartutako berrikuntzak, eta kalitate handiagoko ekoizpena sortu zuen, nahiz eta ez luzaroan, zeren norgehiagoka komertzial handiak atzera eginarazi baitzion, eta azulejuak, errrotuluak eta gauza erabilgarriak egiteari ekin zion bere bizitzako azken urteetan.

Las piezas que nos han llegado son fundamentalmente objetos de carácter decorativo, especialmente columnas y copas con formas neoclásicas que, constituyendo una unidad, tuvieron gran éxito como mobiliario en el inicio de las gradas de los presbiterios parroquiales de la diócesis de Bilbao (San Juan Bautista de Aulesti, Santa María de Meñaka, La Asunción de Nuestra Señora de Larrabetzu y la iglesia de los Santos Emeterio y Celedonio de Goikolexea, del mismo municipio)

Destinados a las sacristías se fabricaron, así mismo, aguamaniles (depósitos de agua con pila a juego) que, directamente aplicados sobre un soporte de madera sujeto a la pared o en nichos excavados en la obra, servían como lavamanos para el celebrante.

Unas y otros presentan ornamentaciones pintadas muy sencillas, de estilo clásico, en azul, verde, marrón y amarillo, a base de motivos florales y geométricos, alternando con guirnaldas y cenefas de color

Durante este tiempo, la Talavera, que sufrirá grandes altibajos, verá crecer y morir en su seno la Fábrica de Loza Fina, en un lapso de tiempo comprendido entre los años 1842 y 1851. Este proyecto de producir en la Casa lozas finas al estilo inglés generó ingentes gastos en instalaciones, búsqueda de materias primas y contratación de técnicos cualificados, gastos que ni la institución benéfica ni sus protectores podían afrontar, lo que determinó su fracaso. Los únicos testimonios conservados de esta producción son dos bellos aguamaniles procedentes de las Iglesias de Santa María de Morga y de San Bartolomé de Olarte.

Tras el descalabro de la loza fina, la Fábrica de Talavera aprovechó las innovaciones introducidas y generó una producción de mayor calidad aunque ésta fuera por poco tiempo ya que la fuerte competencia comercial le hizo desistir en sus esfuerzos y dirigirlos hacia la fabricación de azulejos, rótulos y objetos utilitarios, en los últimos años de su existencia.

Busturiko San Mames Loza Fabrika Busturiko elizateko ipar-ekialdeko muturrean zegoen, Gernikako itsasadarren ondoan. Kokatu zen tokitik hartu zuen izena. San Mames deitzen zitzzion tokiarri, behiala izen horretako baseliza izan baitzen hor.

Fabrikaren sorreran eta bilakaeran, Busturiko bi familia ahaltsuenak izan ziren tarteko: Bulucua eta Chirapozu. Laster, inguruko eta Bilboko beste kapitalista batzuk gehitu zitzazkien: Ambrosio Orbegozo eta Teodoro Maruri, zehazki. 1842an, Gaspar Bulucuak zeramika egiteko lantegi txiki bat abiarazi zuen, eta elkartea txiki bat sortu, hura kudeatzeko eta ustiatzeko: Sociedad Bulucua Hurtado y Cia. Handik bi urtera, elkartea anonimo bat eratu zen. Horrek birmoldaketak eta kapital handitzeak izan zituen 1847an eta 1849an. 1852an, Manuel Canterori utzi zitzzion fabrika, erreinta baten truke, 10 urterako. Hura amaitzean itxi zen fabrika.

Bi franceses izan ziren ekoizpena zuzentzen eta kontrolatzen lehenak: Decan, 1847 eta 1848 bitartean, eta Margaine, 1849an zehar. Pedro González Agüeros izan zen zuzendari teknikoa fabrikaren azken 10 urtean.

Inguruko langileak hartu zituen batik bat fabrikak. Halaber, inguruau (Kanala, Kortezubi, Murueta eta Forua) ziren buztin zurizko hobi emankor eta bikainetik hornitu zen, nahiz eta batzuetan kaolinak eta feldespatoak importatzen zituen Ezpeleta (Lapurdi) ingurutik.



La Fábrica de Loza de San Mamés de Busturia tuvo su enclave en el extremo noreste de la anteiglesia de Busturia, junto a la ría de Gernika. Tomó su nombre del terreno donde se ubicó, denominado San Mamés por la advocación de una antigua ermita allí situada.

El origen y la evolución de la fábrica están estrechamente vinculados a dos de las familias más pudientes de Busturia, los Bulucua y los Chirapozu, a los que se añadieron otros capitalistas de la zona y de

Bilbao como Ambrosio de Orbegozo y Teodoro Maruri. En 1842 Gaspar de Bulucua puso en funcionamiento una instalación dedicada a la producción cerámica creando una primitiva sociedad para su gestión y explotación, la Sociedad Bulucua Hurtado y Cia. Dos años más tarde se constituye una Sociedad Anónima que sufrirá remodelaciones y ampliaciones de capital en 1847 y 1849. En 1852, la fábrica es cedida en arriendo a Manuel Cantero por un período de 10 años, a cuyo término se produjo el cierre de la misma.

Serán dos franceses los primeros encargados de dirigir y controlar la producción: Decan, entre 1847 y 1848, y Margaine durante el año 1849. Pedro González Agüeros será quien figure como director técnico durante los últimos 10 años de la fábrica.

La fábrica se nutrió esencialmente de mano de obra procedente del entorno más próximo y se abasteció de los ricos y excelentes yacimientos de arcillas blancas existentes en los alrededores (Kanala,



Busturiko ekoizpena baxera piezak eta bainugelako nahiz apain-mahaiko puskak ziren batez ere. Horien formak garai hartako peintsulako fabriketako (Sargadelos, Pickman, La Amistad, Valdemorillo...) antzekoak ziren; jatorri ingleseko modeloien kopiak, azken batean, garai hartako gustura edo modara eginda.

Kortezubi, Murueta y Forua), aunque no faltaron las importaciones de caolines y feldespatos de la zona de Espelette, en el País Vasco francés.

La producción de Busturia se centra fundamentalmente en piezas de vajilla y en servicios de lavabo o tocador. Sus formas son simila-



Busturiak pieza zuriak egin zituen, apaindu gabe, eta beste batzuk, eskuz apainduta, urre eta beste kolore batuetako pintzelez. Hor, perimetro-anereak, inizialak eta zerrenda nahiz banda erradialak ageri ziren, zenbait irudi geometrikorekin eta girlandekin konbinaturik. Halere, estanpazioekin apaindutako piezak gorde eta produzitu dira gehien, eta zehazki bi dekorazio dira ezagunenak eta produkzio hori bereizten dutenak: "Mandazainen" irudia, eta basalore urdinez osatutako tapizatua.

"Mandazainen" dekorazioa zazpi zenea edo zerrenda desberdinak ageri da, baina mahats-parrarena nabarmentzen da, aihenez eta mahats-lukuz osatua.

Dekorazio estanpatuen taldea osatzeko, honako hauek ageri dira: kutsu erromantikoko bazterrak, eta izaera herritarreko edo ikusgarriko beste irudi batzuk, pertsonaia zehatzetan zentratuak eta izenburu bat daramatenak (Promesa bat Ama Birjinari, Turkiar familia, Schamyl printzea...).

Lore-irudizko beste estanpatu batzuk aipatu behar dira, azkenik: ezkila-lorenak, peonienak eta dalienak; bikainak hirurak, bai aurkitutako piezen urritasunagatik, bai apaintzen duten ontziaren gaiaren kalitateagatik, toskarik finena baita, "Portzelana opakua" deritzana.

Gorde diren piezen laurdenak bakarrik ageri ditu Fabrikako zigiluak edo markak. Sei dira ezagutzen ditugun zigilu dokumentatuak, hiru inprimatuak (freskoan eginak), eta hiru estanpatu, eta guztiek fabrikaren kokalekua aipu dute: Busturia.

res a las de las fábricas peninsulares contemporáneas (Sargadelos, Pickman, La Amistad, Valdemorillo...), siendo, en último término un trasunto de modelos de origen inglés al gusto de las modas de la época.

Busturia produjo piezas en blanco, sin decoración, y piezas decoradas a mano, con pinceles dorados y de colores, a base de filetes perimetrales, iniciales, franjas y bandas radiales, combinadas con geometrías y guirnaldas. Sin embargo,

son las piezas decoradas con estampaciones las mayoritariamente conservadas y producidas, siendo dos los decorados más característicos y aquellos por los que se identifica la producción de esta manufactura: la escena de "Muleros" y el alfombrado de florecillas silvestres en color azul.

El decorado "Muleros" aparece en combinación con siete cenefas distintas, siendo, sin embargo, absolutamente dominante su vinculación con la cenefa de emparrado compuesta de pámpanos y racimos de uva..

Completan el grupo de decorados estampados, otros paisajes imaginarios de tipo romántico y escenas de carácter popular o pintoresco, más centradas en los personajes y habitualmente con cartelas de título (Una promesa a la Virgen, Familia Turca, El príncipe Schamyl...).

Quedan por mencionar otros estampados con motivos florales, los de campanillas, peonías y dalias, los tres absolutamente excepcionales, tanto por la escasez de las piezas localizadas como por la calidad de la pasta de las vasijas que decoran, la más fina de las lozas, la denominada "China Opaca".

Sólo una cuarta parte de las piezas conservadas presenta sellos o marcas de la Fábrica, siendo seis los sellos documentados que conocemos, tres impresos (incisos en fresco) con troquel y tres estampados, todos ellos mencionando el lugar de ubicación de la fábrica: Busturia.



Fabrika hori Igantzi udalerriko Berriazu auzoan egon zen, Bidasoa ibaieren ertzean, nagusiki nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutako ingurune batean. Martín Antonio Belarra Irisarri izan zen sustatzailea, familia aberats bateko kidea. Belarrak jabetza eta ondasun anitz zituen eskualdean. Gainera, esku-hartze handia eduki zuen bizitza politikoan, Nafarroako Gortetako diputatu izan baitzen.

1844an, loza fabrika bat eraikitzeko baimena eskatu eta erdietsi zuen. Baimen horrekin batera, Artikutzako lur zuri batzuk ustiatzeko baimena ere eskuratu zuen. 1874an, fabrika eginga zegoen. Ekoizpena geroago hasi zen, atzerritik (Frantziatik segur aski) ekarritako tresnekin eta teknikariekin. Langile arruntak, berriz, herrikoak bertakoak izango ziren.

Fabrikaren ekoizpena 1873an eten zen, azken gerra karlistaren ondorioz, eta ez zen sekula gehiago abiatu.

Oso pieza gutxi ezagutzen dira fabrika hartakoak, baina harrigarríak eta interesgarriak gertatzen dira guztiz, haietan nabari diren formen eta apaingarrien ugaritasunagatik eta aberastasunagatik.

Produktuak ohikoak dira, erabilgarriak nagusiki: baxera, apain-mai eta idazmahai jokoak, baina baita apaingarri izaerako zenbait gauzaki ere. Formei dagokienez, Igantziko fabrikak ekoizpen mota horretan ohi direnak darabiltza, eta berritasun gutxi eskaintzen du. Apainketaren alderdiak eskaintzen dizkigu mota eta eredu ugaritago. Honako hauek aurkitzen ditugu:

- Apaindu gabeko pieza zuriak
- Eskuz eta pintzelez apaindutako piezak
- Erliebez apaindutako piezak, Wedgwood estiloan
- Kalkografiatzko estanpazioez apaindutako piezak, lau sail dokumentatu baitira mota horretakoak, non bazter ederrak, irudi erronkiantzoak, irudi militarrak eta harri-zolak ageri baitira, eta beste hainbeste zenefak.

Markatuta dagoelako ezagutu ahal izan da fabrikaren produkzio ezagun guztia. Gaur-gaurkoz dakigunez, lau zigilu mota erabili ziren (bi freskoan eginak, eta bi estanpatu). Ezagarri berdin bat dute guztiek, hots, fabrika dagoen herriaren izena: "Igantzi".



Esta fábrica estuvo ubicada en el Barrio de Berriazu, término municipal de Igantzi-Yancí, a orillas del río Bidasoa, en un entorno de dedicación mayoritariamente agrícola y ganadera. Su promotor fue Martín Antonio Belarra Irisarri, miembro de una familia adinerada y dueño de innumerables propiedades en la zona y que tuvo, además, una destacada intervención en la vida política, ya que llegó a ser diputado en las Cortes navarras.

En el año 1844 Belarra solicitó y obtuvo autorización para la construcción de una fábrica de loza, autorización que se acompañaba además de la cesión de explotación de una mina de tierras blancas en Articuza (Artikutz). En 1847 estaría ya finalizada la construcción de la manufactura, demorándose algo más el inicio de la producción, que se puso en marcha con maquinaria y mano de obra técnica procedente del extranjero (probablemente Francia), siendo mayoritariamente vecinos de la Villa, hombres y mujeres, los miembros del personal no cualificado.

La actividad productiva de la fábrica se paralizó en el año 1873 como consecuencia de la última guerra carlista, no retomándose con posterioridad.

Son escasísimos los ejemplares que conocemos procedentes de esta manufactura pero resultan absolutamente sorprendentes e interesantes por la diversidad y riqueza de formas y decoraciones que nos permiten vislumbrar.

El tipo de productos es el usual en las manufacturas de este género, básicamente utilitario, centrado en servicios de vajilla, tocador y escribanías, pero también con representación de objetos de carácter decorativo. En cuanto a las formas, la Fábrica de Yancí participa igualmente de las habituales en este tipo de producción, aportando escasas novedades. Será el aspecto de la decoración el que nos ofrezca un más variado elenco de tipos y modelos ornamentales, encontrando

- Piezas blancas, sin decoración
- Piezas decoradas a mano con pincel
- Piezas decoradas con aplicación de relieves, al estilo de Wedgwood
- Piezas decoradas con estampaciones calcográficas, habiendo documentado de este tipo un total de cuatro series (paisajes reales, escenas románticas, cuadros militares y empedrado) y otras tantas cenefas.

Toda la producción de la fábrica que conocemos ha sido identificada por encontrarse marcada, siendo cuatro los tipos de sellos empleados y conocidos hasta la fecha (dos incisos en fresco y dos estampados), presentando todos ellos un rasgo común, cual es el de la mención del municipio donde se radica la fábrica, "Yancí".

Productos de Loza del Nervión sozietatea Bilbon eratu zen, 1923ko uztailaren 25ean. Helburu nagusi bat zeukan: lozazko artikuluak egitea mahairako eta zerbitzu sanitarioetarako, eta era guztietako zeramika produktuak egitea, halaber. Elkartearren egoitza Axpe auzoan ezarri zen, Erandioko udalerrian, Bilboko hiribildutik hurbil. Haren kapital soziala 1.000.000 peseta zen.

SORTU ZENETIK BERETIK, Productos de Loza del Nervión SA enpresak Estatuan jadanik sendotuta zeuden enprea oso indartsuekin lehiatu behar izan zuen. Honako hauek ziren horietako batzuk: *La Cartuja de Pickman* eta *Cerámica de San Juan S.A.*, Sevillan; *Ibero Tanagra*, Santanderen; *Fábrica de Loza de San Claudio*, Oviedon, eta *La Asturiana*, Gijónen. Aldi berean, atzerriko industriaren lehia indartsuagoari egin behar izan zion aurre. Industria horrek, mugaztergetatik libre izaki, askoz produktu merkeagoak eskaintzen zituen. Horiek horrela, 1932ko irailaren 17an, sozietateak ordainketa etendura eskatu zuen, eta eman egin zioten. Gerra zibila amaitu zenean, Productos de Loza del Nervión fabrikako instalazioak Azulejos del Nervión Sociedad Anónima fabrikak okupaturik ageri dira, eta hori, berriz, Compañía Roca Radiadores SA-k xurgatu zuen, 1965ean.

Fabrikaren produkzioa etxeko gauza erabilgarrietan zentratzen zen, hau da, baxerak eta kafe jokoak egiten zituzten, mahairako, eta garbiketarako eta apain-mahairako gauzakiak. Ezagutzen ditugun pieza apurretako batzuk zuriak dira, batzuetan moldeko erliebez apaínduak, eta beste batzuk, aldiz, apaínduak. Apaintze hori kalkomania polikromoekin izaten zen, normalean azalean eginak. Urre koloreko marren erabilpena ere ohikoa da. Ahoen errematea gisa eta erliebeak perfilatzeko baliatzen dira. Piezen formak eta irudiak bat datozi garaiko estiloarekin. Estatuko fabrika guztiak zuten modan ipinia estilo hori. Hala ere, badira antzekotasun eta paralelismo batzuk, batez ere formetan, Ibero Tanagra eta San Claudio fabriketako produkzioekin.

Fabrika horretatik ezagutzen ditugun piezak kolore berdean estanpatutako zigilu batez bereizten dira. Animalia baten irudia ageri du (segur aski lehoia), eta horren hanken artean obalo bat da, PLN inizialekin, eta haren azpian, berriz, fabrika zegoen lekuak: AXPE-BILBO.

La Sociedad "Productos de Loza del Nervión" se constituye en Bilbao el 25 de julio de 1923 teniendo como objeto principal la fabricación de artículos de loza para servicio de mesa y sanitario y demás productos cerámicos en su acepción general. El domicilio de la sociedad se fija en el barrio de Axpe, término municipal de Erandio, próximo a la villa de Bilbao, y su capital social se establece en 1.000.000 de pesetas.

Desde el momento de su creación Productos de Loza del Nervión S.A., hubo de competir con fábricas ya muy potentes y consolidadas en el Estado (*La Cartuja de Pickman* y la *Cerámica de San Juan S.A.* en Sevilla, la *Ibero Tanagra* en Santander, la *Fábrica de Loza de San Claudio* en Oviedo y *La Asturiana* de Gijón) al tiempo que tuvo que enfrentarse a la mayor competitividad de la industria extranjera que, libre de aranceles, ofrecía productos mucho más baratos. Así las cosas el 17 de septiembre de 1932 la Sociedad solicita y le es concedida la declaración de suspensión de pagos.

Finalizada la guerra civil las instalaciones de la Fábrica Productos de Loza del Nervión aparecen ocupadas por la fábrica Azulejos del Nervión Sociedad Anónima que en 1965 fue absorbida por la Cia. Roca Radiadores S.A.

La producción de la fábrica se centraba en objetos utilitarios de carácter doméstico, esto es, vajillas y juegos de café para el servicio de mesa y objetos de aseo y tocador. Las escasas piezas que conocemos nos hablan de una producción blanca, ocasionalmente ornada con relieves de molde, y de otra decorada, siendo ésta última conseguida a base de calcomanías policromas, en general aplicadas sobre cubierta. Son usuales también las aplicaciones de filetes dorados como remate de bocas y perfilado de relieves. Las formas de las piezas y los motivos decorativos participan del estilo en boga en la época, puesto en práctica por todas las manufacturas activas en el estado, si bien las similitudes y paralelismos, sobre todo en lo que hace a las formas, son especialmente evidentes con la producción de la vecinas fábricas de la Ibero Tanagra y San Claudio.

Las piezas que conocemos procedentes de esta manufactura se marcan con un sello estampado en color verde que presenta la figura de un animal (posiblemente un león) entre cuyas patas, se presenta un ovalo con la iniciales PLN y, bajo él, el lugar de ubicación de la Fábrica, "AXPE-BILBAO".



## Atzerriko Lozak Euskal Merkaturako

Krema koloreko toska finez (*creamware*) egindako erretiluak eta platerak. Josiah Wedgwood-en (Staffordshire, Inglaterra) fabrikak egin zituen, 1785 inguruan.

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak eskatu zituen, Bergarako Errege Mintegi Abertzaleko ikasleen zerbitzurako.

## Lozas Foráneas para el Mercado Vasco

Fuentes y platos fabricados en loza fina color crema (*creamware*) por la manufactura de Josiah Wedgwood (Staffordshire – Inglaterra) en torno a 1785.

Encargados por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País con destino al servicio de los alumnos del Seminario Patriótico de Vergara.



Lehen Eusko Jaurlaritzaren baxerako platerak.

W.H. Grindley & Co fabrika inglesak egin zituen, 1936an.


Europako zenbait fabrikatik ekarritako toska finezko platerak. Euskal Herriarekin lotutako bazterren, irudien eta gertakarien estampazioak dauzkate.

Platos pertenecientes a la vajilla del Primer Gobierno Vasco.

Fabricados en 1936 por la manufactura inglesa W.H. Grindley & Co.

Platos de loza fina procedentes de distintas factorías europeas decorados con estampaciones que reproducen vistas, escenas o acontecimientos relacionados con el País Vasco.





Frantziako fabriketatik ekarritako baxera piezak. "Basque" estiloa izenekoan egindako apaingarriak dituzte, modan baitziren 1920ko eta 1930eko hamarkadetan. Apaingarri horiek txantiloiekin egin ziren. Ezagutu nabari bat dute. Zenefia geometriko batzuk ageri dituzte, kolore (urdin eta gorri, urdin eta hori, hori eta beltz, urdin eta laranja) eta lodiera askotako lerroen eta zerrenden konbinazioz osatuak. Fabrika bakoitzak bere dekorazioa sortu zuen, eta izen hauek eman zizkieten: *Eskualduna, Basque, Fandango, Basque, Lou Basquez, Côte Basque, Bayonne, Sara, Ustaritz, Biarritz, Cambó...*



Baxera piezak eta apaingarriak, toskaz, portzelanaz eta gresez eginak, euskal irudi kostunbristez apainduak. Europako fabrika askotatik ekarri zituzten. Horietako batzuk egiteko, garaiko artista handi batzuen lankidetza baliatu zen. Adibidez, *Cerbitzua* baxera egiteko, zeinak euskal irudiak ageri baititu beltzez eta granatez, Louis Floutier erabili zuten diseinatzalea. *Cuatro Generaciones* baxera, berriz, Santanderreko Ibero Tanagra fabrikan egin zuten, José Arruenen diseinuen arabera.

Piezas de vajilla procedentes de manufacturas francesas con decorados que responden al denominado estilo "Basque", en boga en las décadas 1920-1930.

Estos decorados, realizados con plantillas, se caracterizan por presentar cenefas geométricas realizadas a base de la combinación de líneas y franjas de distintos colores y grosos (azul-rojo, azul amarillo, amarillo-negro, azul-naranja...).

Cada factoría creó su propio decorado al que bautizó con nombres tales como Eskualduna, Basque, Fandango, Basque, Lou Basquez, Côte Basque, Bayonne, Sara, Ustaritz, Biarritz, Cambó...



Piezas de vajilla y adorno fabricadas en loza, porcelana y gres, decoradas con escenas costumbristas vascas. Procedentes de distintas manufacturas europeas, para la ejecución de algunas de ellas se contó con la colaboración de renombrados artistas del momento. Es el caso de la vajilla Cerbitzua, con tipos vascos en colores negro y granate, diseñada por Louis Floutier o la vajilla Cuatro Generaciones, producida por la Fábrica Ibero Tanagra de Santander según diseños de José Arrue.



1851n sortu zuten **Pasages**-eko portzelana fabrika, Frantziako Limoges-etik etorritako Baignol anaiak, Pasai Donibanen, *Bizkaia* izeneko tokian, zeina Udalarena baitzen.

1858an, Baignoldarrek sozietate bat eratu zuten Modesto Lusonárizekin, Pedro Bollaekin eta Faustino Echevarriarekin, eta *Baignol Hermanos y Cía* eman zioten izentzat. 1878ko otsailaren 4an, Konpainia likidatu egin zen, eta Estanislao del Castillo erosi zuen, zeinak, 1880an, Ramón Llanosi eta Pierre Fussaderi saldu baitzizkien izakinak. Bi horiek, *Fussade y Compañía* izenaren pean, produkzioa abiatu zuten, 1881eko urtarrilaren 1etik aurrera.

1896ko maiatzean, Manuel Cámara Aramburuk eta Ignacio Garbizuk hitzarmen bat egin zuten Udalarekin, tokia errentan hartzeko, toska eta portzelana fabrika bat abiarazi nahi baitzuten, *Fabrica de Porcelana de Ignacio Garbízu* izenaren pean.

**Pasages**-eko fabrika 1995ean itxi zuten behin betiko. Egun, Arizabalo jauregia, Udalaren egungo egoitza, eta labe zeramikoaren tximinia bakanrik ageri dira, haren aztarna gisa.

**Pasages**-ek bi kalitatetako portzelana egiten zuen: bat ostalaritzarako, pasta lodi eta gogorrekoa, zeina kolore zurian saltzen baitzen, kolorreko marra edo zerrenda batzuekin apaindua, eta beste bat, berriz, etxerako, askoz pasta finagoz egina, eta apaindura gehiago eta landuagoak zituena.

Eguneroko bizitzako beharrak asetzeko produkzioa zen: baxerak, konketa eta apain-mahai jokoak, argi-azpilak, argimutilak, botikaontziak, idazmahaiaik eta santuen nahiz Ama Birjinaren irudiak. Formek eta estiloek Limoges-eko produkzioak oroitarazten dituzte, eta apaindurek, osterak, Pariseko dekorazio tailerrak.

Honako hauek dira **Pasages**-eko produkzioko portzelanarik garrantzitsuenak: Madrileko Errege Jauregiko konketa, fabrikak Maria Cristina erreginari oparitu baitzion, 1887an hura fabrika ikustera etorri zenean; “Recuerdo de Pasages” dioten piezak, eta Isabel Borboikoaren (“Sudurmotza”) erretratuaren erreprrodukzioaren minatura daramaten medailoiak.

La fábrica de porcelana de **Pasages** fue fundada en 1851 por los hermanos Baignol, oriundos de Limoges, Francia, en Pasajes de San Juan, Gipuzkoa, en el paraje llamado *Vizcaya*, de propiedad municipal.

En 1858 los Baignol formaron sociedad con Modesto Lusonáriz, Pedro Bolla y Faustino Echevarría bajo el nombre de *Baignol Hermanos y Cía*. El 4 de Febrero de 1878 la Compañía se liquidó y fue adquirida por Estanislao del Castillo quien, en 1880 vendió las existencias a Ramón Llanos y a Pierre Fussade, quienes, bajo la firma *Fussade y Compañía*, comenzaron a producir a partir del 1º de enero de 1881.

En mayo de 1896 Manuel Cámara Aramburu e Ignacio Garbízu acordaron con el Ayuntamiento arrendar el solar a fin de poner en marcha una fábrica de loza y porcelana bajo el nombre de *Fabrica de Porcelana de Ignacio Garbízu*.

La Fábrica de Pasages cerró definitivamente sus puertas en 1915, sobreviviendo a día de hoy el palacio Arizabalo, actual sede del Ayuntamiento, y la chimenea del horno cerámico, como los únicos vestigios.

**Pasages** elaboraba porcelana de dos calidades, una para la hostelería, con pasta gruesa y dura que se vendía en blanco o con sencillas decoraciones de filetes y bandas de color, y otra para el uso doméstico que se ofrecía en una porcelana de pasta más fina y con un mayor abanico de posibilidades decorativas.

Era una producción destinada a cubrir las necesidades de la vida cotidiana: vajillas, juegos de lavabo y tocador, palmatorias, candeleros, botamen de farmacia, escribanías y figuras de santos y vírgenes. Tanto las formas como los estilos nos remiten a las producciones de Limoges y las decoraciones a los talleres de decoración de París.

Las porcelanas más relevantes de la producción de **Pasages** son: el aguamanil del Palacio Real de Madrid, regalo de la fábrica a su Majestad la Reina María Cristina, con motivo de su visita a las instalaciones el 6 de septiembre de 1887, las piezas con leyenda “Recuerdo de Pasages”, y las que portan miniatura en medallón reproduciendo el retrato de la infanta Isabel de Borbón, conocida como “La Chata”.





**Bidasoa** markaz ezagutzen dugu, herritarrok, egun Euskal Herrian bizirik den portzelana enpresa bakarra. Irungo hirian dago. Ma-haiko zerbitzurako portzelanak egiten ditu, eta izaera artistikoko zenbait artikulu.

Porcelanas del Bidasoa enpresaren ibilbidea 1935eko martxoaren 30ean hasi zen. Alde batetik, Salvador Echeandia Gal eta José M<sup>a</sup> Berástegui jaunak bildu ziren, eta, bestetik, Pablo eta Gabino Ochoteco Segura anaiak, zeinak merkatariak eta toska nahiz portzelana biltegi baten jabeak baitziren. Echeandia eta Berástegui jaunek finantzatu zuten proiektua, beste baziak batzuekin batera, eta Ochoteco anaiak gaiaz zuten jakintza zabala ipini zuten, oso harreman estua baitzuten Txekoslovakiako eta Frantziako zeramika produkzioko enpresa handienekin.

1947an, Bidasoa enpresa Sociedad Luso Española de Porcelana S. A., LEPSA-ren eskuetara igaro zen, José M<sup>a</sup> Urquijo y Landechoren zuzendaritzapean. Horrek lankide bikainez osatutako talde bat eratu zuten, eta une hartako aurrerapen teknologikorik puntakoenak ekarri.

Laurogeita hamarreko hamarkadatik, enpresak jabe ugari izan ditu, eta zuzendaritza nahiz izen sozial ugari. Horrek eragin handia izan du haren produkzioan nahiz produktuen komertzializazioan. Egungo egunera etorrita, Bidasoa enpresak etorkizun zalantzazkoa dauka. Alde batetik, arazo finantzarioak ditu, eta, bestetik, egitura-zkoak, langile kualifikatu asko ari baita galtzen, horiek erretiratzen direnean, eta ez da belaunaldi ordezkapenik.

**Bidasoa** es la marca con que popularmente conocemos a la única empresa vasca de porcelana que sigue, a día de hoy, en activo. Ubicada en la ciudad de Irun, se ha dedicado a la producción de porcelana para el servicio de mesa y objetos de carácter artístico.

El devenir empresarial de *Porcelanas del Bidasoa* comenzó el 30 de Marzo de 1.935 con la asociación de los señores Salvador Echeandía Gal y José M<sup>a</sup> Berástegui y los hermanos Pablo y Gabino Ochoteco Segura, comerciantes y dueños de un almacén al por mayor de loza y porcelana. Los señores Echeandía y Berástegui financiaron el proyecto, junto con otros socios mientras que los hermanos Ochoteco aportaron sus vastos conocimientos en la materia, resultado de su implicación y contactos con los principales centros de producción cerámica en Checoslovaquia y Francia,

En 1947 *Bidasoa* pasó a manos de la *Sociedad Luso Española de Porcelana S. A.*, LEPSA, bajo la dirección de José M<sup>a</sup> Urquijo y Landecho, quién creó un equipo de buenos colaboradores y fue incorporando los avances tecnológicos más punteros del momento.

Desde la década de los noventa la empresa ha sufrido constantes cambios de propiedad, dirección y razón social que han influido tanto en sus áreas de producción como en la comercialización de sus productos. Llegados a la actualidad, el futuro de *Bidasoa* parece incierto ya que a sus problemas financieros se añaden los estructurales con la paulatina pérdida de mano de obra cualificada que, alcanzando la edad de jubilación, no tiene relevo generacional.



Bidasoa enpresak bi marka erabili ditu, zenbait aldaketarekin, eratu zenetik. Lehena enpresaren inizialak dira edo haren izen osoa, eta bigarrena, berriz, hiru lerro paralelo eta ondulatu, beti berdez estanpatuta, zeinek hiritik igarotzen den Bidasoa ibaiaren ura irudikatzen baitute.

Bere hasieratik, Bidasoak bi produkzio mota izan ditu: erabilgarria, hau da, mahaiko baxerak eta jokoak, eta artistiko edo apaingarria. Tokiko eta nazioarteko artista handien lan-kidetza izan du bietarako. Fabrikaren produkzio-jarduerak ezaugarri nagusi bat izan du beti, hots, berrikuntza teknologikoa, bai instalazioen mailan, bai lehengaietan nahiz dekorazioetan. Enpresak etengabeko berrikuntza praktikatu du diseinuan ere. Horri guztiari esker, modelo iraultzaileak sortu ditu mahaiko zerbitzurako. Harrera izugarri ona izan dute merkatuan, eta sari ugari irabazi, nazioartean.

Azken urteetan, ostalaritzarako eta jatetxeetarako zerbitzuetan espezializatu da. Aitzindaritza posizioa lortu du hor, bere produktuen kalitateari eta produktu pertsonalizatuak egiteko duen gaitasunari esker.



Dos son las marcas que, con variaciones, ha utilizado *Bidasoa* desde sus inicios. La primera responde a las iniciales de la empresa o su nombre completo y la segunda son tres líneas onduladas paralelas, estampadas siempre en verde, representando las aguas del río Bidasoa que surca esa ciudad

Desde sus orígenes *Bidasoa* ha mantenido una doble línea de producción, la utilitaria, concretada en vajillas y servicios de mesa, y la artística u ornamental, contando para una y otra con la colaboración de destacados artistas locales e internacionales. La actividad productiva de esta fábrica se ha caracterizado por la renovación tecnológica, tanto a nivel de instalaciones, como de materias primas y decoraciones, lo que unido a la continua innovación en el campo del diseño, ha dado lugar a la creación de revolucionarios modelos para el servicio de mesa que han tenido una extraordinaria acogida en el mercado y han merecido variados galardones de carácter internacional.

En los últimos años se ha especializado en servicios para la hostelería y restauración, alcanzando una posición de liderazgo debido a la calidad de sus productos y a su gran flexibilidad a la hora de realizar creaciones personalizadas.



## Fábrica de Porcelanas Vidania

1933 aldera, Juan eta Miguel Muñoa Pagadizabal anaiek **Alfarería Guiipuzcoana – Lurontziola** sortu zuten, Bidegoianen, Dionisio Azkue Arregi “Dunixi” idazlearen eta margolariaaren zuzendaritzapean. Fabrikak etxeko tresneria egiten zuen, buztin erre eta beiraztua, ingurueta zen burdin buztina erabilita.

Berrogeiko hamarkadaren azkenean, Muñoa familia, zeina Donibane-Lohizunen bizi baitzen ihesi joanda, Pablo eta Gabino Ochoteco Segurarekin jarri zen harremanetan, portzelana fabrika bat abiarazteko: **Fábrica de Porcelanas Vidania**. Horrek 1950-51n ekin zion bideari, aurrez tailerra birmoldatuta, non ganbera bikoitzeko labe indartsu bat eraiki baitzuten. Enpresak berrogeita sei gizon-emakume langile zituen, Ochoteco anaien zuzendaritzapean, eta Vicente Muñoa Loinaz zen fabrikako nagusia.

Berrogeita hamarreko hamarkadaren erdi aldera, eta zigor politikoengatik, Muñoa familiaren ondasunak enkante publikoan saldu ziren; portzelana fabrika, tartean. Juan Francisco Puente Ortaz erosи zuen, Donostiako Muebles El Coliseo-ren jabeak. Jabe berriak bultzada finantzario handia eman arren, fabrika hondorik gabeko zulo bihurtu zen, eta, hirurogeita hamarreko hamarkadan, itxi egin behar izan zuten. Denbora horretan, hogei bat langile ziren enpresan; herriko bertako emakumeak, gehienak.

Lehen garaian, elementu bakunak fabrikatu zituzten, ostalaritzarako, eta kalitate hobeagoko artikuluak: piezarik gabeko baxerak, zerbitzurako, eta kafe eta askari joko apaingarriak. Apaingura nagusiak hauek ziren: kolorez nahiz urrez margotutako anereak edo zerrendak, eta lore antzeko kalkomania polikromoak, anere batzuekin aldzkatuta.

Produkzio horrek berdez edo marroiz estanpatutako marka darama. Horrek ezkutu oso landu bat erakusten du. Bidaniako Muñoa-tarren oinetxeko Muñoa abizenarena da.

Bigarren garaian, apaingarriko jokoak, botika-potoak eta izaera apaingarriko ontziak egin ziren, hirurogeita hamarreko gustuaren arabera. Lerro garbiak eta kolore indartsuak nagusitzen ziren hor, kalkomaniaz eta urrezko anereeet osatutako loerezko edergarriekin aldzkatuta. Koloreak agerian daude ostalaritzara zuzendutako tresnetan eta ontzieta ere, non kafegailu modernoetara egokitutako forma metagariak nagusitu baitziren merkatuan, eta urrezko apaingarriak ageri zituzten horiek, kolorezko hondoan gainean. Garai horretako piezak bi kolorez estanpatutako zigilu batez daude markaturik. Horrek PV inizialak ageri ditu kolore berdean, hots, Porcelanas de Vidania, eta zubi bat, beltza, ibai bateko ur ondulatu gainean marraztua, bere jabearen abizenari erreferentzia garbia egiten diola.



## Fábrica de Porcelanas Vidania

Hacia 1933, los hermanos Juan y Miguel Muñoa Pagadizabal fundaron en Bidegoian la **Alfarería Guiipuzcoana – Lurontziola** bajo la dirección del escritor y pintor Dionisio Azkue Arregi “Dunixi” que producía objetos de menaje en barro cocido y vidriado, a partir de la arcilla ferruginosa que había en los alrededores.

A finales de la década de los cuarenta la familia Muñoa, exiliada en San Juan de Luz, contactó con los hermanos Pablo y Gabino Ochoteco Segura, para poner en marcha una empresa de porcelana, la **Fábrica de Porcelanas Vidania**, que inició su andadura en torno a 1950-51, previa remodelación del taller donde construyeron un potente horno de doble cámara. La empresa contó con cuarenta y seis empleados, de ambos性, bajo la dirección de los hermanos Ochoteco, siendo el jefe de fábrica Vicente Muñoa Loinaz.

A mediados de los años cincuenta y debido a sanciones de carácter político, las propiedades de la familia Muñoa salieron a pública subasta. Entre ellas se encontraba la fábrica de porcelanas que fue adquirida por Juan Francisco Puente Ortaz, propietario de Muebles El Coliseo, en San Sebastián. A pesar del impulso financiero dado por el nuevo propietario, la manufactura se convirtió en un saco sin fondo por lo que tuvo que cerrar en la década de los setenta. En este periodo había una veintena de trabajadores, principalmente mujeres procedentes de la propia localidad.

En la primera época fabricaron elementos sencillos en blanco destinados a la hostelería, así como objetos de mejor calidad, como vajillas sin piezas para el servicio, y juegos de café y merienda decorados, bien pintados a mano a base de fileteados y bandas en color y oro, bien con calcomanías policromas de motivos florales alternando con fileteados.

Esta producción lleva marca estampada en verde o marrón que reproduce un escudo fajado y timbrado de casco terciado a la diestra, perteneciente al apellido Muñoa de la casa solariega de los Muñoa en Vidania.

En la segunda se elaboraron juegos de tocador, botes de farmacia y vasijas de carácter ornamental, elaborados al gusto de la década de los sesenta con predominio de líneas puras y fuerte colorido intercalados con otros de motivos floreados a base de calcomanías y fileteados en oro. El colorido también estará presente en el menaje destinado a la hostelería donde las formas apilables adecuadas a las modernas cafeteras habían copado el mercado, presentando decoraciones en oro sobre fondos de color. Las piezas de este periodo están marcadas con un sello estampado en bicolor que reproduce en verde las iniciales “PV”, Porcelanas de Vidania, seguido de un puente, en negro, dibujado sobre las aguas ondulantes del río, en clara referencia al apellido de su propietario.



1957an, Porcelanas del Norte S.A., P.O.N.S.A. sortu zen Iruñean, kapital nafarraz eta zuzendaritza katalanaz. Bi produkzio mota egin nahi zituen: sukaldeko tresnería, apain-mahaiko elementuak, eta kafe nahiz txokolate jokoak, batetik, eta apaingarriak eta oparitzeko gauzakiak, bestetik.

1960an, haren sustatzaileak Pablo eta Gabino Ochoteco Segura anaiekin jarri ziren harremanetan, eta *Porcelanas del Bidassoa* enpresako teknikariekin. Laster, beste sección batzuk ezarri zituzten enpresan: modelaketa, dekorazioko eskola eta tailerra, eta laborategi bat. Horrek guztiak produkzio lerroak ugaritzea ekarri zuen. Mahairako zerbitzuak eta gauzaki apaingarriak sartu ziren produkzioan. Huraxe izan zen fabrikaren garairik errentagarriena.

1979an, enpresa lan-sozietate anonimo bilakatu zen, PONSAL, eta langileek autogestio erregimenean hartu zuten haren jabetza. Fábricas 1984 aldera iritsi zuen bere produkzio-gaitasunik handiena, urtean 5.000.000 pieza egiten zituela. Bi faktore zeuden hazkundearen oinarrian: matrizegintzako teknika berriak ekarri izana, eta zenbait prozesu, bereziki apaingarrikoak, mekanizatzea. Horrek guztiak, artisau-balioarekin konbinatuta, kalitate handiko produktuak eskaintzen zituen. Produktuek diseinu klasikoak eta modernoak zeuzkaten barne. Produktuak etxeko nahiz mahaiko zerbitzurako ziren, eta apaingarriak. Baziren ostalaritzarako produktuak ere.

1993ko irailaren 9an, Comercial Europea de Porcelanas S.A.L., COMEPOR eratu zen, eta 1996an, berriz, lantegi moderno batera aldatu, Cordovillara. Orain, Navarra de Cerámicas Técnicas S. L. deitzen da enpresa. 2000n, ordainketa-etendura bat jasan zuen, eta, horren ondorioz, Cerámica Industrial Montgatina S.L. valentziar enpresarekin aliatu zen. Porcelaine

Group Alliance osatu zen horrela, Hostelería & Catering-entzat porzelanazko baxerak ekoizteko. Horregatik, Iruñeko lantegiak platerak bakarrik egingo zituen; urtean 7.000.000 pieza, "high tech" kalitatekoak. Beste ordainketa-etendura bat etorri zen, eta eskaerak ere izugarri urritu ziren. Horrek fabrika behin betiko ixtea ekarri zuen. 2006ko otsailaren 12an gertatu zen.

*IRABIA* izenaz ezagutzen da nafar enpresa



En 1957 se funda en Pamplona *Porcelanas del Norte S.A.*, P.O.N.S.A. con capital navarro y dirección catalana para la producción de menaje de cocina, elementos de tocador, juegos de café y chocolate, y un segundo grupo formado por objetos decorativos y de regalo, en porcelana.

En 1960 sus promotores contactaron con los hermanos Pablo y Gabino Ochoteco Segura y con técnicos de *Porcelanas del Bidassoa*, e implantaron nuevas secciones, como la de modelado, una escuela-taller de decoración, y un laboratorio. Todo ello trajo consigo una ampliación en la línea de producción donde se incluirían servicios de mesa y objetos ornamentales, siendo la época más rentable de la historia de la fábrica.

En 1979 la empresa se convirtió en sociedad anónima laboral, PONSAL, y la plantilla asumió la propiedad en régimen de autogestión. Hacia el año 1984 alcanzó su máxima capacidad productiva con 5.000.000 de piezas anuales, fruto de la incorporación de nuevas técnicas de matrizería y la mecanización de los procesos, especialmente los decorativos que, conjugados con el valor artesanal, ofrecían resultados de gran calidad. La gama de productos incluía diseños clásicos y modernos, tanto de menaje y servicio de mesa como de decoración, además del repertorio hostelero.



El 9 de septiembre de 1993 se constituyó la empresa *Comercial Europea de Porcelanas S.A.L.*, COMEPOR, y en 1996 se trasladó a una moderna fábrica en Cordobilla. La suspensión de pagos del año 2.000 obligó a la fábrica navarra, ahora denominada *Navarra de Cerámicas Técnicas S. L.*, a aliarse con la empresa valenciana Cerámica Industrial Montgatina S. L. formando *Porcelaine Group Alliance*, con el objeto de producir vajillas en porcelana para Hostelería & Catering por lo que la planta de Pamplona se dedicaría exclusivamente a platos, produciendo 7.000.000 de piezas anuales en calidad "high tech". Una nueva suspensión de pagos y la falta de pedidos supuso el cierre definitivo de la fábrica que se consignó el 12 de febrero de 2006.

La firma navarra es reconocida por la denominación *IRABIA*.



